



1. Moduloa



OINARRIZKO MARKOA ETA BEGIRADA

TUTOREA:
OLATZ MANUEL EZENARRO

1. MODULUA: Oinarrizko Markoa eta Begirada

Ardatza: Gatazkaren "Zergatia" Ulertzea.

- Gatazkaren definizioak, eraldaketara bidean. Zer diote autore ezberdinek gatazkaren inguruan, nola ulertzen da?
- Zergatik agertzen dira jokabide agresiboak? Zer egon daiteke gazteen jokabideen atzean?
- Agresibitatea pertsonon adierazpen gisa ulertzen.

JUSTIFIKAZIOA

Gatazka giza bizikidetzaren ezinbesteko osagaia da, eta haren ulermenak ikuspegi klasikoa gainditu behar du. Hasieran, gatazka interes, jarrera eta balioen konfrontazio gisa definitzen da, baina horren azpian behar asegabeak daude.

Jokabide oldarkorrak (irainak, bazterketa) ez dira akats moralak, baizik eta frustrazioaren eta autonomia edo aitortza bezalako beharren adierazpen desegokia. Faktore sozialek eta familiaren eraldaketek areagotu egin dituzte gabezia horiek.

Ikuspegi eraldatzaileak agresibitatea pertsonaren osasun psikologikoaren eta osotasunaren aldarrikapen gisa ulertzera bideratzen gaitu. Agresibitate eraikitzaile hori bizitzarako pultsioa da, baina muga eta bidelaguntza behar ditu.

Modulu honen helburua da gatazka eta oldarkortasuna hazkunderako aukera gisa ikustea, zigorren orde enpatian eta erantzukizunean oinarritutako esku-hartze pedagogikoak bideratzeko.

1. MODULUA: GATAZKAREN "ZERGATIA" ULERTZEA

1.1 Gatazkaren definizioak, eraldaketara bidean: Zer diote autore ezberdinek gatazkaren inguruan, nola ulertzen da?

Nekez ulertu dezakegu gizakia gatazkako errealitateetik urrun. Gatazka gizakion errealitatearen ezinbesteko osagaia da, nahiz eta historikoki modu negatiboan ulertu den, indarkeriari eta konfrontazioari hertsiki lotuta hain zuzen ere. Modulu honetako lehen helburu eta urratsa, gatazka begirada positiboago batetik ulertzea da, gatazka modu eraikitzailean hartzeak, hain zuzen ere, harremanak hobetzeko eta errealitate sozialak eraldatzeko aukera eskaintzen du (Vinyamata, 2003).

Gatazka bizitzaren berezko ezaugarria izanik, giza izaeraren eta elkaiekintza sozialaren berezko eta banaezina da. Historian zehar, aditu ezberdinek ahalegin handiak egin dituzte gatazkaren arrazoiak eta konponbideak ulertzeko. Gatazkaren izaera polisemikoa ulertzeko, hura definitzen duten hainbat ikuspegi aztertzea ezinbestekoa da. Ortík (2012) dioen bezala, gatazka definitzeko orduan, garrantzitsua da interesen, balioen eta helburuen arteko aurkakotasun hautemana azpimarratzea.

1.1.1 Gatazka Konfrontazio eta Aurkakotasun gisa

Gatazkaren definizio sinple eta erabilienetako batek gatazka bi alderdi edo gehiagoren arteko interes, pertzepzio edo jarrerren konfrontazioa dela dio. Definizio horrek, Ortík (Vinyamata, 2003an aipatua) azaldutakoaren testuinguruan, talka agerian jarri eta jarrerren aurkakotasuna azpimarratzen ditu.

Ikuspegi honi jarraituz, Toledano-k (2012) gatazka interes, behar eta balioen aurkakotasuna dagoen eztabaida edo dibergentzia egoera gisa definitzen du. Toledano-k (2012) argi uzten du, gatazka ebazpen bortitz batekin (alderdi bat ezabatu edo suntsitu behar denean) lotu ohi den arren, ez zaiola beldurrik izan behar, baldin eta **modu eraikitzailean eta e -bortitzean** aurre egiten bazaio. Hortaz, definizio honek hasierako konfrontazioaren nozioa hartu eta hura ebazteko beharraren ñabardura gehitzen dio.

1.1.2. Gatazka, pertzepzioaren eta barne konplexutasunaren emaitza gisa

Konfrontazioaren agerpenetik haratago, gatazkaren ulermen sakonagoak bere sustrai subjektiboetan eta kausa genetikoetan jartzen du arreta. Ruiz Omeñaca-k (2004) azpimarratzen du gatazka egoera hori sortzen dela diskordantzia bat alderdiek horrela hautematen dutenean, errealitatearen, beharren, joeren, interesen edo balio propioen inguruan. Definizio honen ekarpen nagusia da gatazka ez dela soilik objektiboa, baizik eta subjektiboa: gatazkak esangura du soilik parte hartzaileek

bataezintasuna hautematen badute. Hautematen den diskordantzia hori da gatazkaren esperientzia biziari forma ematen diona.

Puig Rovira-k (1996) gatazkaren sorrerari buruzko ikuspegi genetikoa eskaintzen du, esanez gatazka behar, interes eta ikuspuntu ezberdinen ondorioz edo giza bizikidetzak jasaten dituen injustizia egoerek motibatuta sortzen dela. Gainera, Puig Rovira-k (1996) gatazka barne esparrura eramaten du, adieraziz balioen arteko eztabaida pertsona bakoitzaren barnean bat egiten duten desio eta itxaropen kontrajarriek sortzen dutela. Hori dela eta, gizakiaren konplexutasuna da, berez, gatazkaren etengabeko iturria.

2. Zergatik agertzen dira jokabide oldarkorrak? Zer egon daiteke gazteen jokabideen atzean?

Gazteen artean jokabide erasokorrak eta gatazkatsuak agertzea faktore anitzeko fenomeno da, bai norbanakoaren beharretan eta premia emozionaletan, bai hezkuntza eta familia ingurunean eragina duten gizarte eta kultura eraldaketa sakonetan errotuta dagoena. Vinyamataren (2003) hitzen arabera, jarrera hauen atzean, premiak eta nahiak daude, askotan asetu gabekoak eta horrek jokabide oldarkorrak eta bortitzak ekarri dezake. Prozesu horietan, osagai psikologikoei, kontzeptuaren zentzurik zabalenean, eta oso ondo ulertutako faktore sozialek, berebiziko garrantzia izango dute gatazka egoerak areagotu eta eragingo dituzten fenomenoak, gertaerak eta gatazkak sortzeko eta garatzeko prozesuan. Gelako ergoerak aintzat hartuta, ohiko egoera batzuk hauek izan daitezke (Vinyamata, 2003):

- Irakaslearekiko edo ikaskideekiko errespetu falta.
- Hitzeko agresibitatea (irainak) edo agresibitate fisikoa (bultzadak edo borroak)
- Lankide batzuk baztertzea
- Ikasgelako jardueretan parte hartzeari uko egitea, materiala gaizki tratatzea edo liskarrak, besteak beste.

Gatazken jatorria aztertzeko orduan, ezinbestekoa da eragin dezaketen faktore ezberdinak aztertzea:

- Faktore psikologikoak eta emozionalak:
 - Premiak ez asetzea: Ase gabeko premiek eta nahiak paper garrantzitsua betetzen dute jarrera gatazkatsuen sorreran, eta jarrera horiek, aldi berean, jokabide oldarkorrak edo

bortitzak eragiten dituzte, egoeraren intentsitatearen, premiaren eta tamainaren arabera.

- Emozioen kudeaketa desegokia: Gatazkekin batera emozio negatiboak izaten dira askotan: haserrea, mesfidantza, mespretxua, arbuioa, beldurra edo erresumina. Emozio bizi horiek kudeatzeko zailtasunak eta ustekabeko kalte bati nahita egingo balitz bezala erantzuteko joerak erreakzio oldarkorrak eragin ditzakete. Testuinguru horietako eraso min egiteko asmoak, benetako kalteak eta arauen urraketak definitzen dute (Infante Rejano, 2002 an aipatua).
 - Arreta bilatzea: integratuta edo onartuta sentitzen ez diren ikasleek arreta eta maitasuna eska dezakete modu suntsitzailean (traba eginez edo arreta jarritz).
- Faktore biologikoak eta fisikoak:
 - Ariketa horrek organismoa eta garuna oxigenatzen laguntzen duela iradoki da, eta horrek zenbait toxina desagerraraztea ekar lezakeela, zenbait jarrera eta portaera indibidual eta sozial gatazkatsuren kausan egon daitezkeenak.

2.1 Zer egon daiteke gazteen jokabideen atzean?

Gazteen jokabide gatazkatsuen atzean, bizikidetzarako balioak eta trebetasunak eskuratzea zailtzen duten gizarte, kultura eta testuinguru faktoreen sare konplexu bat dago.

- Gizarte eta familia faktoreak:
 - Funtzio sozializatzailerik familiarraren galera: Eraldaketa sozialek eragina izan dute familian, historikoki oinarritzko ohiturak eta portaera jarraibideak ikasten ziren sozializazio eragile nagusia izan baitzen. Gaur egun, familiaren testuinguruak sarritan ez du sozializazioaren aldeko funtzio hori betetzen, gurasoek aitona amonen edo kontratatutako langileen esku uzten dutelako erantzukizuna, eta horiek haurren eskakizunekiko kalteberagoak izan daitezke.
 - Aisia pasiboa eta iragazkirik gabea: Aisialdi aktibo eta sozialetik (jolas motorrak berdinkideekin, non elkarrekikotasun arauak ikasten ziren) aisia pasibo eta indibidualera igaro da. Haurrek ordu asko ematen dituzte telebistaren aurrean edo bideojokoetan jolasten, indarkeriaren, desberdintasunaren, bidegabekeriaren eta elkartasunik ezaren inpaktua leuntzen duen hezkuntza iragazkirik gabe. Batzuetan jasaten duten materiala "zabor intelektual eta etiko" gisa deskribatzen da.

- Balioen krisia: Ikasgeletan ikusitako portaera problematikoek adierazten dute gizarte plural eta demokratikoetan elkarbizitzarako ezinbestekoak diren balio pertsonal eta sozialen falta. Balio pertsonal eta sozialen urritasunak eta familia-, lan- eta ekonomia-egoera ezegonkor eta/edo gatazkatsuek eskola-errealitate tentsioduna marrazten dute.
- Testuinguruko eta eskolako faktoreak:
 - Gatazkaren izaera bizitzari atxikita dago: Gatazka bizitzarekin batera sortzen da, eta premia, interes eta ikuspuntu desberdinen ondorioz sortzen da. Bizitzak, hazkundeak eta gizarte harremanek tentsioa eta krisia dakarte.
 - Ezkutuko curriculumaren eragina: Eskola eremuan, irakasleek, nahi gabe eta oharkabea, zenbait gatazka sustatzen dituzten balioak, jarrerak eta sinesmenak transmititu ditzakete.
 - Eredu lehiakorrak eta diskriminazioa: Garaipena eta errendimendua bilatzea motibazio nagusia da kirol jarduera askotan, eta gaitasun gutxien dutenen edo baliabide gutxien dituztenen (etorkinak edo disgaitasunak dituzten ikasleak, esaterako) bazterketarekin eta diskriminazioarekin lotutako gatazkak sortzen ditu. Adibideen artean, trebetasun maila txikia izateagatik ikaskideei uko egitea dago.
- Botere harremanak: Ikasleen arteko botere desorekak (askotan gaitasun motorrari edo lidergoari lotuak) gatazka egoerekiko sentikorrak dira.

3. Agresibitatea pertsonon adierazpen gisa ulertzen.

Agresibitatea adierazpen pertsonal gisa ulertzeko, funtsezkoa da faktore psikologikoekin, emozionalekin eta gizabanakoaren barne behar asegaitzekin lotzen duten testuetara jotzea. Hori horrela, ase gabeko beharren eta portaera oldarkorraren arteko loturan, Vinyamatak (2003), lotura zuzena ezartzen du barne motibazioen eta jokabide oldarkorren artean. Autoreak adierazten duen bezala, ase gabeko premiek eta nahiek zeregin nabarmena dute jarrera gatazkatsuak sortzeko, eta horrek, aldi berean, jokabide oldarkorrak eta bortitzak eragiten dituela, egoeraren intentsitatearen, premiaren eta garrantziaren arabera.

Juul-ek (2015) dio agresibitatea ezin dela ulertu moralaren ikuspegitik, hau da, ona edo txarraren begiradatik. Agresibitatea, gizakiok ditugun oinarrizko beharren adierazpen gisa ulertu behar da:

- Mugak eta osotasuna: Agresibitatea, askotan, pertsonaren muga pertsonalak defendatzeko eta bere osotasuna babesteko modu bat da. Haserre oldarkorra agertzen duenean, gaztea bere buruaren, bere espazioaren eta bere autonomiaren balioa aldarrikatzen ari da. Juul-en arabera, norberaren osotasuna defendatzeko gaitasun hori ez da negatiboa; aitzitik, identitate pertsonal sendo bat garatzeko ezinbestekoa da.
- Oldarkortasuna, Konexioa eta aitortza eskatzeko saiakera gisa: Jokabide oldarkorra, batzuetan, gazteak bere benetako beharra (ulertua eta aitortua izateko) asebetetzeko egiten duen saiakera desesperatu bat da. Jarrera oldarkor baten atzean, sarri, honako eskaera hau dago ezkutuan: "Mesedez, ikus nazazu ni eta ulertu zer behar dudan".

Juul-ek (2015) agresibitate konstruktiboa eta destruktiboaren arteko bereizketa egiten du, alegia, agresibitate eraikitzailearen eta suntsitzailearen artean.

- Konstruktiboa: Frustrazio edo min baten aurrean sortzen den energia mobilizatzailea da, zeinak gure beharrak lortzera bultzatzen gaituen. Beharrezkoa da eta balioztatu egin behar da.
- Destruktiboa: Energia hori beste pertsonen aurka zuzentzen denean sortzen da, kaltea eraginez. Hau da, estrategia desagokia erabiltzen denean.

Juul-en (2015) pentsamenduaren muina, agresibitatea ikusten dugunean, jokabidea baino haratago begiratu behar dugula, eta jokabide horren atzean dagoen adierazpidea (beharra, osotasuna, frustrazioa) aintzat hartu behar dugula da.

Beraz, begirada eraldatzaile horrek eskatzen du:

- Enpatia: Gaztearen frustrazioarekin edo behar ase gabearekin konektatzea.
- Mugaketa: Jokabide destruktiboari muga argiak jartzea, baina ez zigor hutsez, baizik eta errespetuzko bidelaguntzatik.
- Bideraketa: Gazteari bere osotasuna eta beharrak adierazteko modu egokiagoak aurkitzen laguntzea, eraikitzailea izan dadin.

Agresibitatea ez da desagerrarazi beharreko zerbait, baizik eta modu osasungarrian bideratu eta onartu beharreko giza pultsio bat, gure bizitza eta harremanak aberasteko balio dezakeena (Juul, 2015).

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Fraile, A., López Pastor, V. M., Ruiz Omeñaca, J. V., & Velázquez Callado, C. (Coords.). (2007). *La resolución de los conflictos en y a través de la educación física*. Graó.

Juul, J. (2015). *Agresión: ¿Un nuevo y peligroso tabú?* Herder Editorial.

Llamas Toledano, J. (2003). La resolución de conflictos en el aula de educación física. *Revista Tándem. Didáctica de la Educación Física*, (13).

Ortí Ferreres, J. (2003). La resolución de conflictos en el aula de educación física. *Revista Tándem. Didáctica de la Educación Física*, (13).

Vinyamata, E. (Koord.). (2003). *Aprender del conflicto: Conflictología y educación*. Graó.